

22. EUSKAL DENDA®

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka Feria del Sector Artesanal Vasco Feria du Secteur Artisanal Basque

Abenduak - Diciembre

2017 / 12 / 6 - 10

Durangoko Azoka Plazan

Plaza del Mercado de Durango

*Bizitza
Ehunduraz*

www.euskaldenda.info

facebook.com/arbaso



22. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

Arbaso, Euskal Herriko Artisautza Tradizionala bizkortzeko elkarteak, Euskal Denda abiatuko du beste behin ere. Urtean antolatzen duen ekitaldi handienak 22 urteko ibilbidea egin du eten barik Durangon; eta hemen da, ostera ere. Bizkaiko Uria euskal artisautzaren erreferente eta epizentro bilakatuko da hain esanguratsua den abenduko zubian; bestalde, erakustoki garrantzitsua ere bada. Durangoko merkatu plaza izango du kokagune, beste behin ere, Euskal Dendak, Euskal Herrian egiten den artisau azoketatik nagusienak. Edizio honek inoiz baino berrikuntza gehiago dakar, eta horrez gain, omenaldia egingo zaie bizitza artisautzari eman dioten aitzindariei.

“Bizitza ehunduz-Tejiendo la vida” izango da sentimenduz eta emozioz betetako edizioa honetako leloa. Aurtengo Euskal Dendan, Arbasok maitasun handiz gogoratu nahi ditu Juan Unzueta eta Jose Ramon Salmanton. Biak hil dira duela gutxi eta itzelezko hutsunea utzi dute Arbason; izan ere, elkarteak beti aitortu du haien lanaren balioa eta meritua, haien ardura eta dedikazioa. Bizitzaz osoa eman dute biek saskigintzari lotuta. Aurten, beraz, biak izango ditugu gure artean, euren lanak jarriko baititugu erakusgai Merkatu Plazaren beheko aldean. Halaber, kartelego protagonismoa gaztainondo ehundurak hartu du, eta arestian esan dugun legez, edizio honetarako aukeratu dugun leloak ere gure kide maiteek egindako bidea gogorazten digu, biak izan baitira Bizkaiko saskigintzako adierazle argiak.

Euskal Denda, bada, ezinbesteko topaketa izango da artisautza bizirik dagoen sektorea dela egiaztatzeko; horren adierazgarria da topaleku honetara lehen aldiz etorriko diren artisauen kopurua. Parte hartzaileen ia % 40a izango da, beraz, argi geratzen da sektorean belaunaldi berria datorrela eta erakundeen aldetiko laguntza behar duela irakite bizian dabilen gremio honek.

Ezin da ahaztu Euskal Dendak bere atea zabalik izango dituen bost egunetan, zuzeneko erakustaldi asko egingo direla; helburua baita bisitariak artisautza lanarekin jabetu daitezen.

HELBURUAK

Beste behin ere, Euskal Denda sektorearen erakustoki onena izango da. Helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz.

Profesional hauek biziraungo badute, behar-beharrezkoa da, krisi garaian, artisauen lana bertatik bertara ikusaraztea; horixe baita Euskal Dendaren funtsa, hain zuzen ere. Izan ere, artisautza bizimodu bat da, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko modu bat da, baita garapen ekonomikoa sustatu eta, gaur egun, galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko modu bat ere. Horrela bada, ekimen honen inguruan Euskal Herriko artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira. Ezin dugu ahaztu artisautza bizimodu bat dela.

Gure artisautzak badu mugak gaindi ditzakeen kalitatea; beraz, horixe izango da helburua epe labur eta ertainera, noranzko horretan lan egin behar baitugu.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisauek produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

EUSKAL DENDAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Euskal Dendaren arrakasta hazten joan da edizio batetik bestera. Azoka egunak zenbat, bisitariak 20.000 inguru izaten dira. Duela bi urte batu zen bisitari gehien, 23.000 inguru.

Antolatzaileen iritziz, Euskal Dendaren moduko azoka berezi batera horrenbeste jende hurreratzea balio erantsia da; izan ere, argi gelditzen da bertaratzen dena kontzienteki joaten dela gozatzeko nahiaz eta bertan parte hartzen duten artisauek gogoz. Beraz, Euskal Dendara joaten den publikoa, bisitari leiala da; horregatik bada, asko zaintzen dira antolakuntzako detaile guztiak, topaketa bakoitzeko ilusioa benetakoa izan dadin.

Datozkigun egunei erreparatuta, aurtengo ediziorako aurreikuspena aurreko urteetakoaren antzekoa da, bai bisitarien, bai salmenten dagokienez. Horrek esan nahi du sektorearentzako bultzada bat dela, krisi garai hauetan.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. Nahiz eta azoka esparruak muga fisikoak dituen, artisau gehiago izango ditugu, guztira 54, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik etorritakoak; iaz baino bi gehiago. Bestalde, bertan izango diren firma askok lehen aldiz parte hartuko dute, 20 profesional batuko dira aurtengora; beraz, hori ere bada berrikuntza. Alegia, artisauetatik % 37k estreinakoz parte hartuko dute azoka honetan, kutxu freskoa eta eraldatzailea emanez.

Lurraldekako parte hartzea dela eta, Bizkaiak izango du ordezkari gehien, hogeita sei artisau. Gipuzkoatik hamahiru etorriko dira eta Nafarroatik zortzi. Arabarrak sei izango dira, iazko kopurua, eta lapurtar bakarra.

Aipagarria da Durangaldean egiten den lan handia, artisautzaren epizentroa baita, eta horren isla ikusiko dugu Euskal Dendan, zazpi ordezkariak parte hartuko dute eta. Honakoak dira: Elorrioko **Anitha Mol**, paperezko bitxiak egiten ditu; **Rosa Etxabe**, zeramikari eta grabatzailea. **Restaurarte**, zaharberritze tailerra, 2010eko stand onena sariaren irabazlea; **Bea Unzuetak** zuntz begetalak erakutsiko ditu, omenduko dugun Juan Unzueta alaba da eta bere arbasoen bidetik jarraitzen du; **Eneko Unzalu** bitxigilea ere han izango da. **Felix Larrañaga** egur taillagin berriztarra ere etorriko da Durangora, baita **Gorakat** gazte elorriarra ere, bere produktu berriekin. Azken biak estreinakoz hartuko dute parte Euskal Dendan.

Sektorekako sailkapena egiten badugu, aurtengorako, metalgintza, zeramika eta ehungintza dira ordezkari gehien dituztenak, 10, 8 eta 7 tailer, hurrenez hurren. Halaber, aipatzekoa da nekazaritzako elikagaien sektorea, bere lekua egin baitu Euskal Dendan: zazpi aditu ekarriko ditugu.

NOBEDADEAK

ARABA

Arabar ordezkariak:

Ziorregi, Idiazabal jatorrizko izendapena duen gazta, Inoson (Urkabustaitz) egindakoa.

Anahuel, sendabelarren bidezko tratamendu naturalak. Vitoria-Gasteiz.

Estibaliz de Cristóbal, Gasteizen landutako bitxigintza.

BIZKAIA:

Bizkaiko artisautza arloko hamar enpresa etorriko dira lehenengo aldiz, Euskal Dendara:

Mama Kitenge, moda eta diseinu enpresa, multikulturala eta ausarta. Bilbo.

Zuribel, oihalezko jatorrizko osagarrien diseinua eta patroigintza. Bilbo

Vicente Alcaide, itsas zaporedun zeramika. Bermeo.

Zur berri, egurrez egindako kalitate handiko lanak. Bilbo.

Gorakat, larrugintza berria. Elorrio.

Terai Cosmética, azala zaintzeko jardueradun enpresa. Bilbo.

Larruki, larruzko osagarriak. Getxo.

Taller Cuero 925, larruaren arloa iraultzen. Bilbo.
Felix Larrañaga, egur taillagina. Berriz.
Hilda Soto, bitxigintza tailerra. Erandio.

GIPUZKOA:

Gipuzkoak ere lehen aldiz etorriko diren lau ordezkari izango ditu:

Luhei, estilo propiodun gazte marka dinamikoa. Irun.

Damasoro Etxaldea, abeltzaintza ekologikoa eta familiarra. Ibarra.

Gorrotxategi, txokolate egile bikaina, ibilbide luzekoa eta prestigioduna. Tolosa.

Gurumarionetas, magiaren unibertsoa. Donostia.

NAFARROA:

Nafarroatik lehen aldiz etorriko dira honakoak:

Katealde, ahateak hazten eta foiea egiten duen artisautza enpresa. Altsasu.

Kamuts, zeramika garaikidea. Elizondo.

A los 40 joyas, bitxigintza eta bestelakoak lantzen dituen enpresa ekintzailea. Atarrabia.

2017ko JARDUERAK

Euskal Dendak beti hartzen ditu aintzakotzat bisitariak, artisautza tradizionalen murgiltzeko asmoarekin. Aurtengo 22. edizioan, bada, are gehiago. Asmoa baita ekoizleak bertatik bertara ezagutzeaz gain, antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik bada, bertan, zuzeneko erakustaldiak egingo dituzte. Beharbada, tailerrak eta erakustaldiak dira azoka hau Euskal Herrian egiten diren besteak berezia egiten dutenak. Beraz, aurtengo ere, bisitaria ikuslea izateaz gain, pieza bat sortzeko prozesuan parte hartu ahalko du.

Halaber, Euskal Dendaren bost egunetan, “artisans despitatus” lehiaketan parte hartu ahalko dute bisitariak, beraiek izango baitira protagonista eta hautatuko baitute zein izan den erakustoki onena. Bisitarien artean erosketa-baleak zozkatuko dira.

ETENGABEKO ERAKUSTALDIA

Merkatu plazako beheko aldea Bizkaiko saskigile nabarmenetako biak omentzeko gune bilakatuko da. Jose Ramon Salmanton eta Juan Unzueta artisauz ari gara. Duela gutxi hil dira biak eta gogora ekarri nahi ditugu beraien eskuekin landu eta egindako objektuen bitartez.

José Ramón Salmantón. Sodupe 1959

Salmanton ume-umetatik egon zen saskigintzari lotuta, izan ere, familiako jarduera zen hura. Beraz, ezin daiteke esan noiz hasi zen ogibide horretan. Bere ibilbidean, objektu asko egin ditu, esaterako, otzarak, kutxak, paperontziak edo erlojuak. Hasieran, pieza tradizional samarrak egiten zituen, baina denboraz, merkatuaren exigentzia berrietara egokitu zen .

Horrela bada, hobetzeko irrikak bultzatuta, maisulan bilakatu zituen paperontziak, aterki-ontziak, ogi-otzarreak, jostotzarak, bionboak edo baserriko aulkiak. Bizitzan egindako ibilbideagatik, Bizitza osoa Artetsu saria jaso zuen 2015ean.

Juan Unzueta. Garai. Garai 1924

Juan Unzuetak, Juanito etxe koentzat, ere antzera ikasi zuen artisautza lanbidea, aitarengandik, hain zuzen ere. Bada, ikasitakoa zortzi seme-alabei transmititu zien aitak. Tailerra Durangon ipini zuten eta familiako kide guztiak, ama ere bai, saskigintzan aritzen ziren, egunero 100 saski egiten baitzituzten Ezkerraldeko meategietara bidaltzeko.

Unzueta familiak kate-lana egiten zuen, alegia, egurra atera, arrabota pasatu, kalibratu, meategirako saskiak egin... Gerra Zibilaren ondorioz, Unzueta familiak jarduera aldatu behar izan zuen, baina aurrera egin zuten.

Juan gizon ekintzailea zen, eta gauza berriak egiten hasi behar zuela pentsatu zuen; horrela, meategietarako saskitzarrak, apurka-apurka, egiteari utzi, eta bestelako pieza landuak eta akabera hobeak zituztenak egiten hasi zen. Horixe izan da bere ezaugarri nagusia: ondo egindako lana, mimoz eta maitasunez.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

FITXA TEKNIKO

EDIZIOA: 22.a

DATA: abenduaren 6tik 10era

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 16:30 - 21:00.
Igandea 10, 20:00ak arte.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Asteazkena 6, 11:00etan

ERAKUSTOKIAK: 54

LURRALDEKA

Araba 6
Bizkaia 26
Durangaldea 7
Gipuzkoa 13
Lapurdi 1
Nafarroa 8

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 7
Beira 1
Zura 6
Larrua 6
Ehungintza 7
Zeramika 6
Arte 1
Bestelakoa 2
Euskal Kirola 1
Kosmetika 4
Bitxigintza eta forja 10
Imitaziozko bitxigintza 1
Papera eta kartoia 1
Lore lehorrak 1

LELOA: “Bizitza ehunduz”

LEKUA: Durangoko udal merkatu plaza.
1.600 m²

LEHIAKETAK: Artisau despistatua
Publikoren ustez, erakustokirik politena.
Zozketa: Erosketarako baleak

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia

BABESLEAK: Durangoko Udala

Durangoko Turismoa

DEIA

GARA

ONDA VASCA

ANBOTO

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info

euskaldenda.blogspot.com/

www.arbaso.com

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA: Lorea Madina

prentsa@arbaso.com

607 86 32 24